

# → AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 53. alea

DATA: 2025/11/14

## GUREAN

### CHILLIDAREKIN DANTZAN

Aste honetan, HHko ikasleak San Telmo museora hurbildu dira. Gure artea eta kultura ezagutzeari garrantzi handia ematen diogu, horregatik horrelako ekintzak burutzea ezinbestekoa da guretzat. Oraingoan, "Chillidarekin dantzan" San Telmo museoak proposatzen duen esperientzia izan da. Eduardo Chillida eskultorea eta bere obra ezagutzen dute ikasleek dantza eta musikaren bidez. Bidenabar, etxeko txikienek beraien irudimena askatzeko aitzakia ere bada. Aretoetan Chillida eskultorea eta bere obra ezagutu, eta hezkuntza tailerrean eskultura mugikorrak egiten dituzte Vivaldiren musikari jarraikiz.



## GURE INGURUAN

### AMUA JAIALDIA

**NOIZ: AZAROAK 14-15**

**NON: HONDARRIBIA - ITSAS ETXEA AUDITORIOA**

Amua zuzeneko musika da. Biniloen azoka. Film labur musikalen jaialdia. Zuzeneko irratsaioak. Urtean zehar, musikazaleak Itsas Etxea Auditoriumeko agertokian biltzen diren hainbat musika proposamenen batura da Amua. Ibilbide laburrean, Amuak erreferente kulturala izatea lortu du, eta ekimen hori babesten jarraituko dugu, egin behar duen bidean.



## BAZENEKITEN?



BOST MENDEREN ONDOREN,  
PASAIKO BADIAGO URETAN  
BALEONTZI TRANSOZEANIKO BAT  
EGONGO DELA BAZENEKITEN?

San Juan baleontziak, XVI. mendeko euskal baleontzi transozeanikoaren erreplika zientifikoak, lehorrean eraikitzeko etapa amaitu du. Horrekin batera, fase berri bat abiatuko du itsasoan, eta nazioarteko itsas ondarearen mugarri bat ezarriko du.

**ZUEN PROPOSAMENAK  
HONA BIDALI:**  
[melvira@herriametsa.eus](mailto:melvira@herriametsa.eus)